« Euskararen lurralde Estatutu » batentzat

Pour « un Statut territorial de l'euskara »





Herrialde Biltzarrean onartu proposamena,
2013ko Uztailaren 20an, Donibane Lohitzunen

eaj
pnb

Euskararen lurralde estatutu baten alde

EAJ-PNB, Alderdi abertzale eta demokrata bezala, euskara, gure herriaren unkiezin ondarea da, bere nortasun kolektiboaren zati bat eta gerorako euskal aberriaren garatzeko tresna, historian izan den bezala.
Oztopo eta zailatsun handien aintzinean dagoen gure hizkuntz zaharrak, bereziki Iparraldean, EAJ-PNB « euskararen lurralde estatutu » baten alde agertzen da, lehen urratsa bere onarpen ofizialarako.

Zergatik garatu euskara ?

Iparraldean, euskara kenka larrian da. Bakarrik, biztanleriaren %20a euskalduna da. Zaharrenak dira Euskaldunenak. 69 000 Euskaldun baziren 1991an, biztanleriaren %33a, 56 000a, 1996an, biztanleriaren %26.5a, 54 500 Euskaldun 2001ean, biztanleriaren %25a eta 51 100 Euskaldun, 2011an, biztanleriaren %21.4a. 20 urtez, 17 000 Euskaldun galdu dira. Nola segurtatu euskararen bizi iraupena Iparraldeak bere nortasuna gara dezan ?

Alderdi jeltzale bezala, euskara Euskadiren hizkuntza da. Bere garapena gure lehentasunetarik bat da (jeltzaleen karta). Alderdi humanista bezala, euskara norberaren garapen faktore bat bezala ikusten dugu. Euskara Euskal Herrian eta kanpoan bizi diren Euskaldun guzien ontasun amankomun bat bezala onartua izan behar da.

Euskara, kultur eta ondare gako bat bezala

Euskal Herriko kultura eta ondarearen zati handi bat euskarari lotua da, baita ere berari lotu sorkuntzak hainbat mendeetan.



Euskaltzainburuak euskara garapenaren kideak

Euskara komunikazio tresna bezala

Euskal hiztunek beren artean euskaraz hitz egiteko eskubidea daukate. Gaur, euskara Nafarroaren zati batean eta EAEn, lan, harreman eta komunikazio hizkuntza da. Beraz, baikorra da harremanen egiteko Euskal Herriko lurralde eta biztanle guzien artean.

Euskara, norberaren garatze gako bat bezala

Burraso euskaldunak direlarik, haur bati, bere familiaren oinarriak helaraziak izan behar zaizkiote. Bere burrasoen hizkuntza baloratua bada, bere erroen memoria baikorra da ere.
Erdaldunen artean, bizitzen den tokiko lurraldeari idekidura bat da bere hiz kuntza eta bere kultura ezagutuz, integrazio faktore bat.

Kasu guzietan, garatze pertsonalaren gako bat da, edo sortzaile kulturala bezala edo euskal kultura gozatuz, kantuan, bertsularitzan, literaturan edo olerkian.
Horrelako elebitasuna, hain ezberdin diren bi hizkuntzen artean oso baikorra da gaitasun intelektualak indartzeko eta beste gaietan hobeago izaiteko (ikusi hezkuntzako emaitzak).
Ttipi ttipitik lortzen den elebitasuna posible da, inglesari konparatuz, euskaraz zinez bizitzen ahal baita, tokiko gune berezietan, zinez mintzatzeko eta ikasteko. Ttipi ttipitik lortu elebitasuna garrantzitsua da gerorako, beste hizkuntza batzuen ikasteko.

Euskara, sorkuntzari lotua

Gaur euskarari esker, sorkuntza ainitz ager daitezke, hainbat alor kulturaletan, euskal rock-an adibidez.

Euskara, giza harreman gako bat bezala

Pertsonek ontasun amankomun bat badute, batzen dituenak, bereziki, euskarari lotu aktibitate kulturalak.

Euskara, garapen motore bezala

Herriaren atxikimenduari lotua da. Horri esker, jende asko Euskal Herrira itzultzen dira inplikatuz : lantegiak sortuz edo azkartuz, elkarteak sortuz, indartuz. Iparraldearen irudi berezi eta baikorra-



Euskara, euskal kultura eta ondarearen ezinbesteko gako bat

ren zati bat da, bereziki lurraldeari lotu mozkinak saltzen dituzten lantegientzat. Tokiko ondarea baloratzeko izpiritua.

Aintzin sartze bat : euskararen onarpen ofiziala

Definizioa eta adibideak

Ezinbesteko urratsa, edozoin hizkuntz berreskuratzerentzat. Ez da hizkuntzarik iraun lezakeena eta beraz, gara daitekena ez badu onarpen ofizialarik bere gizartean. Ezinbesteko neurria da, berez ez bada aski ere.
Ofizialastunak ez du segurtatzen euskara salbatua izanen dela, erran nahi du salba daitekela. Ez da hizkuntz berreskurapenik ezagutzen onarpen ofizialarik gabe (Hebroa, Israel-en, katalana Katalunian, frantsesa Kebek-en …). Hizkuntz berreskurapena oso zaila da. Horrek erran nahi du urrats guziak egin behar direla, eskolan, komunikabideetan eta abar, egiazko lan nahikor bat traba juridikorik gabe eta hori ofizialtasunak du bakarrik bermatzen. Zailtasun faktore ainitz badira : hizkuntz irudiaren beherapena, hizkuntza baten iksateko eta menperatzeko zailtasunak, erabilpenaren zailtasuna hizlari gutti direlarik, hizkuntz lehiaketa handia … Minbizia duen gaixo bat ez da azpirinarekin artatua, bainan tratamendu azkar batekin. Gaurko politika azpirina da, ofizialtasuna da tratamendu serios hori.

Ofizialtsaunak erran nahi du euskararen presentzia bizi publikoaren alor guzietan eta hizkuntz eskubideen lorpena. Oinarrizko eta ezinbesteko tresna da hizkuntz politika oso baten eramateko, Hezkuntzan, komunikabideetan, zerbitzu publikoetan, administrazio edo talde ez euskalzale batzuen traben kontrako gakoa (bereziki nagusi direnak, Frantzian eta Espanian).

Euskararen onarpen ofiziala edo euskararen ofizialtasuna Iparraldeko lurralde osoan gure hizkuntza, frantsearen heinean izanen da, jakinez frantsesa dela Errepublikaren hizkuntz ofizial bakarra Frantziako lurralde osoan eta hizkuntz nagusia Iparraldeko herritarren artean. Ofizialtasun horrek euskara menperatzen edo menperatzen ez duten herritarrendako eskubideak Iparralde mailan dira bakarrik. Ofizialtasunak eskubide berriak sortuko ditu Iparraldeko biztanleentzat, bainan ere, obligazio berriak lurralde honen podere publikoentzat, Estadoko administrazioentzat, zerbitzu publikoen handientzat edo tokiko Lurralde Elkargoentzat. Adibidez, administrazio batean, euskaraz mintzatzeko eskubideak erran nahi du jendeak errezebitzen dituzten langileak, euskara badakitela. Burrasoen eskubidea, haien haurren eskolaratzeko euskarazko kurtsoetan erran nahi du erakasleak euskara badakitela …

Euskararen ofizialtasuna frantsesaren ondoan, gure lurraldean ez du obligaziorik sortu behar biztanleriari. Ez dugu uste beharrezkoa dela euskararen erakaskuntza inposatzea ikastetxeetan, inposatu politikak kontrako erreakzioak sort lezazkete, gure hizkuntzaren garapenari oker izanez.
Euskararen ofizialtasuna EAJ-PNB-ren engaiamendu politikoaren lehen helburua da, Euskal Herrian egiazko gizarte elebiduna euskara-frantsesarekin, beste hizkuntzen erakaskuntzari damurik egin gabe, gaztelera eta inglesa adibidez.

Ofizialtasunaren baldintzak

Bi bide euskararen ofizialtasuna lortzeko : Iparraldean, euskararen ofizialtasunaren tokiko erabaki bat eta berantago berretsia Kontseilu Konstituzionalean, edo berretsia Giza Eskubideen Europako Kortean edo Europa Batasunaren Auzitegi Kortean
Aldaketa konstituzionala, Frantzia mailan Eskualde eta Hizkuntz Guttituen Eurokartaren izenpetzearen garaian eta beste kasu batzuetan, Kontseilu Konstituzionalak, Errepublikaren banaezinezko oinarria, frantses populuaren berdindutasuna eta berdintasuna lege aintzinean goraipatu ditu "eskualde" hizkuntzei onarpen ofizial baten ezeztatzeko. Ideia nagusia da nazioarteko legediaren arabera mugitzea, uniformizaziotik Batasuna ainiztasunean onartuz.



Europako eta nazioarteko legediak kultur guttietsiaren aurkakoak

Ofizialtasunaren bide legalak

1. bidea : Iparraldean, euskararen ofizialtasunaren tokiko erabaki bat

Erabaki hori Iparralde mailan gertatzen da, gure Lurraldea ordezkatuko duen egitura berrian, Pirineo Atlantikako Kontseilu Orokorran edo Akitaniako Eskualde Kontseiluan, Iparraldearentzat.
Horrek suposatzen du Kontseilu Konstituzionalaren jarrera aldaketa bat edo Giza Eskubideen Europako Kortearen edo Europako Auzitegiaren erabaki baikorra.

Euskara ez da ikusia izan behar oztopo bat bezala, bainan xantza bat bezala Frantzia eta Espaniarentzat. Ez da hizkuntz politikarik eginen frantsesa edo gazteleraren kontra. Goi kulturako hizkuntza horiek euskararekin batera aberastu dira. Euskararen berreskurapen eta garatzearen lehentasuna Euskal Herria dagoen Estadoetako bi hizkuntzen errespetuan egin behar da.

- Banaezintasuna, guttiengo nazionalak eta salbuespena

Errepublikaren banaezinezko oinarria : Europa Batasunari buruz eskuduntza helarazteak onartu dituen bezala (1976ko Abendoaren 30a), orain Frantzia definitzen da Errepublika « desentralizatutako antolaketa » duena (Konstituzioaren lehen artikulua). Beraz, horrek erran nahi du banaezintasuna bateragarri dela eskuduntzen helaraztearekin, bai gora bai behera, orokorki.

Bereziki ere hori gertatzen da, Frantziak onartzen baitu « gutiengo nazionalak » eta beren bazterketaren eza.
Onartzen du ere bazterketarik ez egitea hizkuntzaren arabera. Frantziak Europa Batasunaren Oinarrizko Eskubideen karta berretsi du. Karta horrek Lisboako Itunaren indartzean, 2009tik goiti, itun baten indarra dauka. Beraz Frantziari inposatzen da. Karta horren bazterketa ezaren 21. Artikuluak dio :
« 1- bazterketaren debekua lotua sexuari, arrazari, koloreari, jatorri etniko edo zozialari, berezitasun genetikoari, iritzi politikoei edo beste iritziei, gutiengo nazionala batean izaiteari, diruari, sortzeari, elbarritasun bati edo sexu orientabide bati. »

Frantziak Giza Eskubideen Europako Hitzarmena ere berretsi zuen 1974an. 14. artikuluan dio :
« Hitzarmen honetan onartu eskubide eta askatasunak gauzatu behar dira ezberdintasunik egin gabe, sexu, arraza, kolore, erlijio edo edozoin iritzi politiko, jatorri nazional edo zozial, guttiengo nazional batena izan, aberastasun, sortze edo edozoin egoeren arabera. »

« Guttiengo nazional batean izaitea »ren gatik bazterketa kasurik ez izaitea onartzen du orain Frantziak, Europako Batasunaren baitan. Beraz, gaur kontraesankorra da Frantses Gobernuak egin salbuespenarekin Eskualde Hizkuntz Guttituen Eurokarta-ren izenpetzean, 1999ko Maiatzaren 07an :
« ikusiz ez duela guttiengo bat onartzen eta babesten, bainan Europako Hizkuntz ondarearen promozioa segurtatzen eta mintzatzaile « talde » izenaren erabilerak ez duela eskubide kolekti-

borik eskualde hizkuntz guttituen mintzatzaileei eskuratzen, Errepublikako Gobernuak dio Konstituzioaren sar Hitzarekin Euro karta bateragarri dela, herritarren berdintasuna legearen aintzinean eta Frantses populu bat baizik, jatorri, arraza edo erlijioi irizpideak kontutan hartu gabeko herritar guzietaz osatua dena segurtatzen baitu ».

Kontseilu Konstituzionalak ideia berdina jarraitu du :
« Errepublikaren banaezintasunaren oinarriak ez du onartzen « mintzatzaile talde » batzuei eskubide bereziak ukan dezazten, hizkuntza horien mintzatuak diren lurraldeen barnean. » (Kontseilu Konstituzionalaren Erabakia 99-142 zenbakia).

Guttiengo nazionalaren ideia hau zehatzgabekoa egona da eta herri bakotxak bere ikuspegia emaiten zuen. Bainan denborarekin, definizioa zehaztu da. Europako Kontseiluaren Biltzar Parlamentarioak 1201 ebazpena onartu du 1993ko Otsailaren 01ean. Estado kideei galdegiten zieten gehigarri baten hartzea Guttiengo Nazionalen eskubideei buruz Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean. Artikulu horrek definizio zehatz bat zaukan ONUko Guttiengoen Batzordearentzat egin txoxten batean :

« Guttiengo nazionala » konzeptuak Estado baten barnean dagoen jende multzo bat izendatzen du. Horiek :

a. Estado horren lurraldean bizi dira eta horren herritarrak dira
b. Estado horrekilan harreman zahar, azkar eta luzarako daukate
c. Berezitasun etnikoak, kulturalak, erlijiokoak edo linguistikoak badituzte
d. Aski ordezkarikoak dira Estadoaren edo Estado horren Eskualde baten biztanlegoa baino ttipiagoak badira ere
e. Nahi dute elgarrekin zaindu beren nortasun amankomuna, bereziki, haien kultura, ohiturak, erlijioa edo hizkuntza.

Estrazburgon bildurik, 2005eko Ekainaren 8an, Europako Parlamentuak azpimarratu du horrelako definizio bat, 1201eko ebazpenaren definizioan oinarritua izan behar zela, Europa Kontseiluaren irizpideen arabera. Ebazpen horrek Europako Batasunaren definizioa ofizializatzen du eta beraz baliagarria da Oinarrizko Eskubideen Europako Kartarentzat. Iparraldea osoki sartzen da horrelako irizpide orokorretan eta beraz, Frantziako Euskaldunek Guttiengo nazional bat izaitea galdegiten ahal dute.

Gure ustez, babespen logika hori eta bazterketaren eza eskubide konkretuekin erran nahi du onartzea balore bera Guttiengo nazional baten hizkuntza eta hizkuntza amankomunaren artean, beraz, euskara eta frantsesa hein berdinean izan behar dira eta horrek ofizialtasunaren logikan sartzen da, euskararen presentzia orokorrarekin eta euskaraz hitz egiteko eta jakiteko eskubideekin.

Bainan, Oinarrizko Eskubideen Karta hau Europako kuadro instituzionalean kokatzen da, eskuduntzen banatzearekin Europa eta Estadoen artean. Estado bakotxak dauka gaitasuna guttiengo nazional horien kudeaketan, bere lurraldean diren guttiengo nazionalen zerrenda egiteko, beren kokapen instituzionala edo haien hizkuntzen babespen neurriak.



Giza Eskubideen Europako Kortearen epaileak

Karta horren ondorio zuzena oinarri orokorren aldarrikapenean da, guttiengo nazionalen onarpenean. Frantziak ezin du alde batetik onartu guttiengo nazionalen printzipioa eta gero ukatu guttiengo nazionalak badirela bere eremuan.

Kaledonia Berriaren kasuak erakusten du Lege Amonkomunaren salbuespenaren oinarria posible dela. Gehigarri juridiko hori ez da egina bereziki Kaledonia Berriarentzat eta erakusten du nahikeri politikaren garrantzia lege mugeekin.



Hizkuntz berreskurapenaren zati bat komunikabideei esker eta bereziki telebistaren ETB1ekin

- Batasuna ainiztasunean jadanik onartua da

Frantses populuaren batasuna ainiztasunarekin ere bateragarria da, Frantziak onartzen duen guttiengo nazionalarekin, Europako Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartan. (gorago begira).
« Itsas urrunen populazioa »en ideia ere Konstituzioaren baitan da 72-3 artikuluan, lehen kapituluan. Populazio horiek frantses populuaren zati bat dira, beraz batasuna onartua da.

Populazio horren ideia guttiengo nazionalen onarpenaren bidean kokatzen da eta frantses Lege Konstituzionalaren bilakaera erakusten du. Erraitea eskualde hizkuntzak direla bakarrik ondare nazionalaren zati bat kontraesankorra da desentralizazio lege berriarekin onartzen baitu Eskualdeek ukanen dutela eskualde hizkuntzen promozioa beren lurraldean.

- Berdintasuna ekitatearen bidez eta ez berdinduketaren bidez

Berdintasunaren printzipioa legearen aintzinean bazterketa ezaren bermea da legearen aintzinean. Orain arte berdintze ikusmolde batean aztertua da herritar guzien egoera berdina balitz bezala hizkuntz gai honi buruz. Egiazko egoera da egoera ezberdinen kasuak eskualde hizkuntzei buruz. Frantses Legediak ez du erraiten beharrezkoa dela bainan posible dela tratamendu ezberdinak egitea. *« Berdintasuna Legearen aintzineko printzipioak, baldintza berezi batzuen pean, posible egiten badu egoera ezberdinetan diren pertsonak tratatzea ezberdinki, ez du behartzen pertsona horiek ezberdinki tratatuak izan daitezen egoera ezberdinetan direlako »* (Kontseilu Konstituzionalaren Erabakia 2003-489 zenbakia).

Kasu honetan, batzuk ez dute batere harremanik eskualde hizkuntzekin, beste batzu atxikiak dira bainan ez dira bizi mintzatzen diren lurraldeetan eta beste batzu hizkuntza horiei atxikiak dira eta bizi dira mintzatzen diren lurraldeetan. Beraz azken kasu hontako herritarrei eskubideen sortzeak ez luke beste bi kasuetan diren herritarrei arazorik sortuko, lehenak ez baitira gai hortaz axolaturik, bigarrenak ez baitute eskubiderik galdegiten ahal, jakinez beren hizkuntza ez baita bizi beren lurraldean. Ofizialtasuna ez onartzea euskara izaiten ahal delarik komunikazio tresna bat, erran nahi du ez dela onartzen tratamendu berdina frantsesa eta euskararentzat ; bazterketa baten kasua da Europako Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Karta-ren kontra ari dena. (begira gorago). 2. Artikulua, lehen kapitulua aintzinatzea bazterketa da oso laburzki aztertua bada : « Errepublikaren hizkuntza frantsesa da », erran nahi baita frantsesa dela Errepublikaren hizkuntza bakarra, kontraesankorra dena, guttiengo nazionalen errespetuarekin, 75. Artikularen lehen kapituluak adierazten badu ere « eskualde hizkuntzak Frantziaren ondarean dira ». Artikulu hau sinbolikoa da eta ez du ondorio juridikorik.



Euskara bera ainitza da bere euskalkiekin

- Eskualde hizkuntzen babespenarentzat Europako ondare osagai bezala

Bestalde, Korzikako Biltzarrak dion bezala, Frantziak UNESCO-ren Hitzarmena kultur adierazpenen ainiztasunaren babespen eta promozioarentzat berretsi du, 2005eko Urriaren 20an. Barne Legediari inposatzen da. Beraz engaiatzen da hartzea behar diren neurriak zaintzeko Europako ondarean onartuak diren «eskualde» hizkuntz horiek.

Frantziak UNESCOren Hitzarmena ondare kultural materialgabekoa zaintzeko ere onartu du. Ageri hori izenpetu

duten herriak behar diren neurriak hartu behar dituzte desagertzeko arriskuan dagoen hizkuntzak salbatzeko.

Frantziak ez du ahanzten ahal 2012ko UNESCO-ren txoxtena gaurkotzen duena desagertzear diren hizkuntzen zerrenda. Frantzian 26 hizkuntza kasu hortan dira, mail ezberdinetan, 13 zinez lanjerra larrian daude, 8 lanjerran dira eta 5 ahul dira, euskara bezala, Iparraldean.

Izpiritu babesle berdinean, Frantziak Europako Batasunari buruzko Ituna berretsi du (Maastricht 1992. Horrek dio
« Batasunak Estado kideen kulturen garatzea laguntzen du, eskualde eta nazional ainiztasunen errespetuan, agerian ezarriz herentzia kultural amankomuna » (128. artikulua).

- Hizkuntzaren hautua adierazpen askatasun ezinbesteko osagai bezala

Frantziak onartzen du ere adierazpen askatasuna Giza Eskubideen



UNESCOk kultur ainiztasuna bultzatzen du

Oinarrizko Eskubide bat bezala. 1958ko Konstituzioaren Sar Hitzan erreferentzia egiten du Herritaren eta Giza Eskubideen Eskubideen adierazpenari : 11. artikuluak dio :



Euskara, kultur sorkuntzaren gako bat

« pentsakeren eta iritzien komunikazio askea Giza eskubideetarik garrantzitsuenetarik da : Herritar bakotxak mintzatzen, idazten eta inprimatzen ahal du askatasunean, salbu Legeak dion eskubide horren muturkerietan.»

Frantziak ere ONUren Giza Eskubideen Adierazpen Orokorra berretsi du, 1948ko Abendoaren 10ean. 19.artikuluak dio : « edozoin pertsonak adierazpen eta iritzi eskubidea dauka, ondorio bezala duena arazorik ez ukaitea bere iritzien gatik eta bilatzea, ukaitea eta zabaltzea, mugak kontutan hartu gabe, informazioak eta ideiak edozoin adierazpen moldeen bidez «.

Bere 11. artikuluan, Oinarrizko Eskubideen Eurokartak dio ere :
« edozoin pertsonak adierazpen eskubidea dauka. Eskubide horren barnean dira iritzi eskubidea eta ideia edo informazioen komunikatzeko edo ukaiteko eskubidea, podere publikoen trabarik gabe eta mugak kontutan hartu gabe.»

Iritzi eskubidearen ondoan, adierazpen askatasunak dio posible dela harremanak ukaitea, informazioak ukanez edo zabalduz. Jadanik Toubon lege proiketuaren denboran, 1992an, Kontseilu Konstituzionalak adierazpen eskubidearen izenean, artikulu bat baztertu zuen. Horrek zion frantsesa izanen zela « terminologi ofizial « bakarra, beste guziak baztertuz, adibidez iragarkietan. Gehiago dena 21. artikuluak errespetatzen du
« eskualde hizkuntzei buruzko legedia eta arauditegia eta ez da beren erabileraren kontra ».

Guretzat hizkuntza baten hautua adierazpen askatasunaren ezinbesteko osagaia da. Adierazpen hizkuntzaren hautua ez onartzeak erran nahi du adierazpen askatasuna ez dela onartzen. Orokorki, onartua da, hizkuntzalaritza munduan, hizkuntza batek munduaren ikusmolde bat adierazten duela, bere erran nahiak eta hitz bereziak badauzkala. Beraz, hizkuntza baten hautua ez da neutroa informazio eta mezu baten edukian, bainan horren ezinbesteko osagai bat dela.

Kasu batzu badira ere nun euskararen erabilera ez onartzea zerbitzu publikoetan bihurtzen dira baztertketa kasu batzu. Logikoki, euskara elebakarrek edo

euskara frantsesa baino hobekiago menperatzen dutenentzat. Kasu horietan frantsesaren ulerketa eta hizkuntza hortan harremana izaiteko gaitasuna bertako pertsona bat fransesaren erabilpen publikoa pairatzen du.



Euskadi Irratia, euskal irrati publikoa, jarraitu beharreko eredua

pausatzen da, gaizki edo guttiago menperatua den hizkuntza batean. Zerbitzu publikoen gandik etorri informazioa ondorio zuzena dauka herritar baten bizian eta ongi ulertu behar du.

Bestalde, gure bezalako mugazgaindiko herrialde batean, mugazgaindiko harremanak sustatuak dira eta azkartzen dira. Beraz, EAEko euskara bezalako hizkuntz ofizial bat jakitea beharrezkoa da. Europako Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Kartak dio bezala bere 11. artikuluan :

« edozoin pertsonak adierazpen eskubidea dauka. Eskubide horren barnean dira iritzi eskubidea eta ideia edo informazioen komunikatzeko edo ukaiteko eskubidea, podere publikoen trabarik gabe eta mugak kontutan hartu gabe.»

Etorkinak herri batean bizitzeko hautua egiten du, bainan Konfiantsa arloan, hizkuntzaren hautuak konfiantsa faktore bat da adierazpena hobetzeko eta askatzeko. Kasua da bereziki adinetako jendeentzat beren ama hizkuntzarekin, erretreta etxeetan edo erietxeetan. Konfiantsazko harremana gertatzen da euskaraz hitz egiten dutenen artean.

Muga bakarra da eskubide horren onartzea lurralde baten hizkuntz garrantzitsuenentzat. Hizkuntz gaitasun zergati pratikoentzat, nabarmena da komunikaziorako hizkuntz publikoak ez direla biderkatzen ahal. Bainan kontutan hartuz, adierazpen askatasunaren garrantzia, podere publikoek lurralde baten hizkuntz garrantzitsuenak bultzatu behar lituzke.

2. bidea : Konstituzio aldaketa bat

Irtenbide zuzena da, bainan ez dugu podererik horri buruz. Erran nahi luke frantses podereak balukeela nahikunde berri bat « eskualde hizkuntzen » garatzeko. Nazioarteko egoerak bultzatzen du Frantzia mugitzea, adibidez, 2006an, Europako Kontseiluak Frantzia arbuiatu du ez baitu eskualde eta hizkuntz guttituen karta eta guttiengo nazionalen babespen Hitzarmen Nagusia berretsi. Azken dokumento hau aplikagarria da 1998tik goiti.

UNESCO, ONUren kultur erakundea, Parisen dena ainiztasun kulturalen Adierazpen Orokorra berretsi du, 2001ean. Komentario batzuk diote Frantziak ez duela luzaz duen jarrera atzerakoia jarraitzen ahalko hizkuntz guttituen onarpenari buruz.

Egiazko erronka da euskararen ofizialtasuna. Horri esker, hizkuntz politika nahikorra ukan genezake, euskarak ukan lezakelako presentzia bizi publikoko espazio publiko guzietan, politika nahikorrekin hizlarien eskubide linguistikoei erantzunez. Eskualde hizkuntz guttituen Eurokartaren neurriek ez dute deus berririk ekarriko, Iparraldean, jadanik egiten diren gauza guziekin. Bakarrik ekar lezake onarpen legal babestzailea. Kontseilu Konstituzionalak baztertu Ainztin solaseko oinarri nagusiek harreman bat egiten zuten hizkuntza lurralde batekin. Giza Eskubideen Europako Kortearen aintzinean errekurtso bat balire, bide bat ote daiteke eskubide berezien onartzeko hizkuntz baten hizlarientzat, lurralde batean ? Menturaz horrek Kontseilu Konstituzionalaren beldurra sortzen du, bainan, hipotesi bat baizik ez da.

Konstituzioaren aldaketak Espaniako Konstituziotik atera lezazke ideia batzu, jakinez beren eredu unitario frantesetik ateraia dela.

Konstituzio Espanolak dio :

« 2. Artikuluan : Konstituzioa oinarritzen da Nazio espanolaren batasun unkigabean, Espanol guzien aberri amankomun eta banaezinean eta nazionalitate eta eskualde integratzen duten autono-

mia eskubidea onartzen eta bermatzen du, elgarren arteko elkartasunean.
3. artikulua :
1- Gaztelera da Estadoko hizkuntz espanol ofiziala. Espanol guziek ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dute.
2- Beste hizkuntz espanolak ere ofizialak izanen dira beren Erkidego Autonomoetan, beren Estatutuen arabera.



Korrika, euskararen aldeko gizarte zibila baten ikurra

3- Espaniako hizkuntz molde ezberdinen aberastasuna errespetu eta babespen berezia ukanen duen ondare kulturala da. »

Españolentzat ez da oposaketarik Nazioaren banaezintasuna eta eskualde hizkuntzen ofizialtasunarekin. Eskualde Hizkuntzen onarpenak beren mintzatzaileei eskubideak sortzen ditu bakarrik hizkuntza horien lurraldeetan.

Euskararen beharrezko ofizialtasunarekin ondoan, ekintza publikoaren eraginkortasuna azkartua izan behar da.

Egiazko hizkuntz eskumen batentzat

Lan amankomun batetik erakunde nagusi batetarat

Gaur, Euskararen Erakunde publikoak aktore publikoak biltzen ditu : Estadoa, Eskualdea, departamendua eta tokiko hautetsien bi egitura : Hautetsien Kontseilua eta euskal kulturaren aldeko Herrien arteko Sindikata.
Teorikoki, hizkuntz politika bat gogoetatu du, 1999an Eusko Jaurlaritzak aurkeztu zuenetik pentsatua, bera lotua zelarik, hizkuntzalarien teori batzuei, bereziki Joshua Fishman-en hizkuntz tendentziaren aldaketa (RLS) helburu bezala duena hizkuntz ahul baten indartzea hizkuntz azkar baten testuinguruan.

Euskararen Erakunde Publikoaren ekintza publikoaren 3 ardatz nagusiak dira :

- Euskararen transmizioa famili giro baikorra sortuz, burrasoak euskaldunak izan ala ez : burrasoen sentsibilizazioa, erakaskuntza euskaraz, ikasleen sustengua, eskolatik kanpoko beste aktibitate batzu, haurtzaindegi euskaldunak, agusagailu zentroak, material pedagogikoa, gazteekin harremanetan diren publikoen formakuntza, ikus entzunezko tresnak, liburuak euskaraz …

- Euskara biziaraztea, harremanak errextu euskaraz, entzun, begira, mintzatu, sortu, komunikabideetan, agusagailuetan kultura barne, hedapena, toponimia, …

- Hizkuntza azkartu bere transmisioa eta erabilpena indartzeko : euskara ikasi helduei, euskararen erabilpenarako motibazio faktoreak : kalitatea hobetu, ikerketa egin, motibazioa indartu lurraldearen gune guzietan euskarazko oinarrizko zerbitzuak erabilgarri izan daitezen, haurzaindegiak edo euskarazko ikastegiak.

Mugak :

Euskararen Erakunde Publikoaren eragin mugatua ikusiz aktore banatu asko badirela hizkuntz politikaren alor ezberdinetan. Adibidez : F3, France Bleu Pays Basque eta euskararen presentzia eskasa, Hezkunde Nazionala kurtso elebidunentzat. Estadoaren ordezkaria ez da erabakitzaile bat, baizik eta helaraizle bat bakarrik.

Diru ahal mugak. Euskararen Erakunde Publikoaren urratsak, urtero 10€ baino guttiago pertsona bakotxarentzat. Eusko Jaurlaritzaren bi zerbitzuek bakarrik, urteko 45€ pertsonaka aurrekontua dute kontutan hartu gabe, komunikabide publikoen lana, ETB1ekin edo Euskal Irratia-rekin.
Aktoreen banaketa. Euskararen Erakunde Publikoa animazio gune bat da, baina bere lana ez da aktore publiko eta pribatuen artekozubiak eta elkarlanak sustatzea.

Egiazko erabakitzaile publiko batentzat

EAJ-PNBk galdegiten du egiazko erabakitzaile publiko bat identifikatua izan dadin, desentralizazio legearen izpirituan. Horrek zehazten du Eskualdeek dutela eskuduntza ukanen « eskualde hizkuntzak » promozionatzeko. Gure kasuan, lehen lehenik galdegiten dugu Iparraldeko Lurralde Elkargo batek euskararen promozioaren eskuduntza ukan dezan. Horrek erran nahi luke guretzat partaidetzan lan eginen duela, bainan alor horretan erabakitzaile bakarra dela. Adibidez, Hezkunde Nazionalarekin lan eginen du bainan berak dauka lehentasuna politika baten definitzeko Hezkunde Nazionalak gauzatuko duena. Erabakitzaile publiko horrek behar den aurrekontua ukanen du.
Partaidetzak definituko ditu aktore publiko eta pribatu guziekin, solaskidetasun izpirituan, bainan beharrezko ardatz nagusiak finkatuz.

Ezinbesteko neurriak

Euskararen Erakunde Publikoak finkatu 3 ardatzak gauzatu behar dira, guretzat 3 lehentasunekin :

- Euskarazko hezkuntza eskaintza zinez orokortzea

Erakaskuntza Hezkuntzan : Euskararen transmizioa murriztuz doala ikusiz, ikastetxeetan euskara ikastea lehentasunetatik lehentasuna da, gakoa hiztun gazteen ukaiteko.
Euskararen ofizialtasunaren bidean, euskararen ikastea derrigorrezkoa da, bakotxak euskara jakiten ahal duela printzipioari erantzuteko. Hezkuntzak oinarrizko garrantzia dauka egoera hoberena bermatzeko : hiztun gazteena. Printzipio hori lotzen da burrasoek hezkuntza ereduaren hautatzeko duten eskubidearekin, frantsesa eta euskararen presentziaren heinaren arabera. Hoixe da euskararen erakaskuntza Eskaintza orokorra printzipioa. Oinarri hau, 1997an onartua izan da eta ez da oraindik obratua ikasleen burraso bakotxak ez baitu hautatzerik egiteko nahi duen ereduan : A eredua, frantsesez euskara ikasiz, B eredua, elebitasuna frantsesa-euskara eta D eredua, murgiltzea euskaraz eta frantsesa ikasiz.
Gaur D eredu publikoa sortzen ari da, esperimentazio gune batzuekin, Biarritzen, Iparrraldearentzat. Eredu klasikoa bilakatu behar da, Iparraldeko eskola publiko guzietan eskainia izan dadin.
Horretarako, « Erabakitzaile publikoak » Hezkunde Nazionalarekin Karta bat hitzartu behar du, horrelako 15 urteko helburu bat betetzeko. Horrek erran nahi du lehentasuna emanen zaiola ikasleen burraso nahikeriari, Hezkunde Nazionalaren eragileek, ikastetxe buruek edo erakasleek trabarik sortu gabe.

Erakaskuntza Helduei : euskararen erakaskuntza eskaintza ahal bezain bat jendeei, helduei zuzendua da, hizkuntza ikasteko edo alfabetizazioa segurtatzeko, hizlari « hartzaileei ».



Noiz hezkuntza publiko murgildua, ikastolak bezala

Beraz, ekimen pribatuak lagunduz jarraikiz (bereziki AEK), ezinbestekoa da euskararen erakaskuntza orokortzea eskaintza orokor bat xutik ezarriz eta eskainigarria heldu guziei, baserri edo hiri munduetan. Helduen euskalduntzeko zerbitzu publiko baten sorkuntzaren bidean, Iparraldeko Lurralde Elkargoak edo Herri Elkargoak Akitania Eskualde Kontseiluaren sustenguarekin erakaskuntza eta alfabetizazioaren sare bat sortuko du, metodo pedagogiko baten bidez eta kurtsoen tarifikazio amankomuna biztanle guzientzat.

- Eguneroko sentsibilizazio lana

Gaurko globalizazio kultural garai hontan, euskara baztertua izaiteko arrisku handiagoa dauka : gero ta zailago lotzea gaurko munduarekin, komunikazio tresna bezala edo kalitate kulturalean. Sentsabilizazio lana ikaragarria da. Jarraitua izan behar da, komunikabide berezi batzu sortu behar badira ere, osoa lurralde guzietan, Iparraldeko gune guziak unkituz eta zozial arloan, jende



mota guziak unkituz. Motibazioa da lehen urratsa hiztun « kultural » baten lortzeko. Zoziolinguistikak dio 3 urrats behar direla hiztun erregular baten lortzeko (gai dena ulertzea, irakurtzea eta idaztea) : motibazioa azkartua sentsibilizazioari esker, ikasketa eta erabilpena, erran nahi baita hiztun « natural » baten alderantzizko prozesua etxen ikasten duelarik : erabilpena, ikasketa eta motibazioa. Ikasle burrasoen motibazioa da ere gakoa euskararen erakaskuntza mota bat hautatzeko.

- Komunikabide eskaintza indartua

Eguneroko « Informazio eta emozio helarazle » nagusiak dira eta haiekin da gehienik lan egiten ahal. Bide nagusi bat da hizkuntza bat ikasteko eta motibazio kolektibo bat pizteko. Komunikabide publikoek, telebistak, irratiak, Internet, euskara garapenarako zinezko aktoreak bilakatu behar dira eta beharrez tokiko komunikabide publiko berriak sortuak izanen dira, bereziki web gunean.



Euskal « hizkuntz paisaia» bat euskara prestigioaren gako bat

Euskararen aldeko Kuadro linguistiko batentzat

Gaurko oztopoak kontutan hartuz, bainan ere eraman esperientsen arabera, Hegoaldean eta hizkuntz berezi bat daukaten beste lurraldeetan, epe ertaineko estrategia bat xutik ezartzen ahal da, euskararen onarpenarako.

Euskararen ofizialtasuna, hizkuntz berreskurapenerako politika nahikor eta eraginkor baten arrakasta baldintza gelditzen bada, gaur bakarrik helburu politiko, instituzional eta zoziala da. Ofizialtasun gabezia ez da estakulu bat izan behar deus ez egiteko. Borroka garrantzitsu horren ondoan, EAJ-PNBk ezenario ezberdinak ikusten ditu, aintzinamendu guziak baliatuz, erritmoa azkartzeko eta gure galdeen maila moldatzeko (ad : eskumen berriak Eskualdearentzat, Eskualde Hizkuntz guttituen Eurokartaren berrespena, Europako jurisprudentzia, Iparraldeko Lurralde Elkargoaren sorrera …).

Bide hoberena : ofizialtasuna eskualde hizkuntzen normalizaziorako

Eskualde hizkuntzak onartuak dira Nazioan eta babestuak podere publikoen eskutik : Konstituzioan agertzen dira, eskualde hizkuntzak onartuak dira, beren lurraldeetan, frantsesaren ondoan.
Euskararen ofizialtasuna, bere lurraldean, eskubide berriak sortzen ditu bere hiztunentzat eta Iparraldeko biztanleentzat (euskararen derrigorrezko erakaskuntza, podere publikoen eta zerbitzu publikoen aintzinean derrigortzeko eskubidea …)
Lurraldearen bereuskalduntzeko nahikunde publikoa eta euskara/frantsesa berdintasuna legean sartzen dira.
Erabakitzale publiko bat : Iparraldeko Lurralde Elkargoa.

Bide erdibidekoa : eskubide berrien onarpena eta erabilpena ofizialtasunetik kanpo

Bide epe ertaineko hau eskualde hizkuntz guttituen eurokartaren berrestzearekin lotua da. Horrek erran nahi du aintzinetik Kontseilu Konstituzionalaren bilakaera baikor bat, edo aldaketa konstituzionala.
Bide hortan ez da euskaren onarpen ofizialik, euskara/ frantsesa parekotasunari begira
Eskubide indibidual berriei atea idekitzen du, bainan Errepublikako hizkuntza frantsesari konparatuz, gehigarri batzu baizik ez dira.

Epe motzeko bide hobetua : euskararen lurralde estatutua eta tokiko menperatze instituzionala.

Bide hau epe motzeko bidetik hurbil da :
Tokiko Erakunde Publikoaren sorkuntzak Iparraldeko Lurralde Elkargoari Akitania Kontseiluak zituen eskuduntza normalak eta gehigarriak helaraziak dira.
Iparraldeko Lurralde Elkargoak hizkuntz politika eramaiten du eta esperimentazio arloan, araudiak hartzen ditu ongi gauzatzeko.
Iparraldeko Lurralde Elkargoa da euskararen estatutuaren gauzatzeko, errespetatzeko eta aldatzeko bermea.

Oinarrizko bidea : euskararen lurralde estatutua eta Eskualdea « erakunde eramailea » bezala.

Epe motzean, bide bakarra da desentralizazioaren III. Urratsean :
Akitaniako Eskualdeak hizkuntz eta eskualde kulturen promozioaren eskuduntza hartzen du (Hezkuntza kodearen barnean).

Hizkuntz politikaren « erakunde eramailea » bilakatu behar ditaike, euskararentzat eta lurralde okzitandarrentzat. Eskuduntza gehigarrien gauzatzea segurtatzen du, araudi berezien finkatzea esperimentazio arloan eta euskararen lurralde estatutuaren obratzea.
Epe motzeko bide hau, ezinbestekoa eperik gabe geroko aldaketak aintzin ikusteko eta xutik ezartzeko euskara garapenaren aldeko hizkuntz politika baten oinarriak, bi esperimentazio bideak baliatuz, Konstituzioaren 72. eta 37-1. Artikuluan.

« Euskararen lurralde estatutua », euskararen onarpen gero ta handiago baten bermea, Iparraldean.

« Euskararen lurralde estatutua » orain danik horrela defini daiteke : tresna juridikoa da, legislatiboa eta ez bakarrik hitzarmenentzat, araudi legal guziak identifikatzen dituenak, bainan ere, baliagarri diren eskubide eta obligazio guziak biztanleria eta bereziki aktore pribatu eta publikoen aintzinean, euskararen garapena, erakaskuntza eta promozioaren alde ari direnak. « Euskararen lurralde estatutua » babestu eta indartu behar ditu indarrean diren eskubide linguistikoak, baita ere berriak direnak, euskarari lotuak. Akitaniako Eskualde Kontseiluaren pean egina izan behar da, eragile linguistiko publiko eta pribatuen lankidetzarekin, bereziki, Estadoko zerbitzuak. Lege bat bilakatuko da Konstituzioaren 37-1. artikuluaren esperimentazio mailan. « Euskararen lurralde estatutua » ebaluaketa bati lotua izanen da legea indarrean jarraitzeko asmoarekin, Bretanian, Katalunian, Korzikan edo Alzazian abiatu ekimenak bezala.

« Euskararen lurralde estatutua » ezinbesteko urrats bat da gure hizkuntzaren onarpen ofizialarentzat.

« Euskararen lurralde estatutua » ez da hizkuntz politika bat, horrek biltzen baititu helburu eta bideak, ekintza eta diru mailetan, gauzatuak euskara babesteko, promozionatzeko eta garatzeko « lurralde estatutu »aren aplikapenean.



« Euskararen lurralde estatutuak », guttienez neurri horietaz osatua izanen da :
1- Eskualde Hizkuntz guttituen eurokartaren pundu guziak, Frantziak onartuak eta Konstituzioarekin bat egiten dutenak
2- Euskararen erakaskuntza eskaintza orokorraren printzipioa eta bideak, Hezkuntza mailan eta helduentzat (eskola publiko eta pribatu bakotxak 3 hezkuntz ereduak proposatzen ahal dituzte, begira gorago) ;
3- (Falloux lege ohia) Hezkuntza kodearen salbuespen aplikapena inbertsioak orokorki diruztatzeko euskararen erakaskuntza seguratzen duten ikastetxe pribatuentzat, konfesionalak ala ez (ikastolak)
4- Tokiko komunikabideetan euskarazko programen hedatzeko kuotak
5- « Erakunde eramaile » baten izendapena, hizkuntz politika eramaiteko Iparraldearentzat (Akitania Eskualdea, Iparraldeko Lurralde Elkargoaren zain) ; Erakunde eramaileak guttienezko hitzarmenak eginen ditu :
Hezkunde Nazionalaren errektorearekin euskararen erakaskuntza eskaintza orokorra obratzeko
Tokiko komunikabide pribatu eta publikoekin euskararen sentsibilizazio eta presentzia segurtatzeko politika bat,
Tokiko zerbitzu publikoekin euskararen presentzia segurtatzeko Estadoko edo Tokiko Elkargoko administrazioetan edo zerbitzu publiko bat segurtatzen duten lege pribatuko zerbitzuetan,
6- Eskuduntza delegatua eta azkartua « Erakunde eramaile »arentzat mugazgaindiko harremanentzat, hizkuntz politikarentzat, (…)

Beraz, « euskararen lurralde estatutua » beharrezko tresna berezia da Iparraldeko jendeen eskubideak bermatzeko, euskarari buruz, eragile publikoen obligazioak ongi azpimarratzeko eta euskararen garapenarako, promozioarako eta erakaskuntzarako eragile ekintzen lege kuadroa ongi finkatzeko. « Euskararen lurralde estatutua » gure hizkuntzaren ofizialtasunaren dinamikan argiki kokatzen da.

Proposamen horri esker, EAJ-PNBk euskarari duen atxikimendua berresten du, Euskal Herriaren hizkuntz historikoa, Iparraldeko biztanle zati baten hizkuntz baliatua eta etorkizunerako gaur mintzatua den lurralde guzietan. « Euskararen lurralde estatutu » horren bidez, EAJ-PNBk ez du ukatzen gaur Euskal Herritarrei debekatua zaizkien beste hizkuntz eskubideak.